


JARDUERA ➤ Ikusi aro honen bideoa [hemen](#)

Aintzinaroa duela K.a. 3000. urtean hasi zen lehen testu idatziak agertu zirenean eta erromatar inperioa desagertu arte (476.urtea) luzatzen da.



JARDUERA ➤ [Klikatu hemen](#) hurrengo orrietan irakurriko duzunari buruzko bideoa ikusteko.

Penintsulako herriak

Duela 3.000 urte inguru Iberiar penintsulan bi herri handi zeuden: **iberoak eta zeltak**.

Iberoak penintsularen **hegoaldean, mediterranean kostaldean eta Balear uharteetan** bizi ziren.



Tributan antolatzen ziren **errege** baten agindupean. **Nekazaritzan eta abeltzaintzan** aritzen ziren. **Herrixka hesituak** zituzten eta etxeak laukizuzen-formakoak ziren. Beren **dirua** zuten, eta merkataritzan aritzen ziren beste herri batzuekin. **Eskultura** ederrak egiten zituzten; esate baterako: Elxeko Dama.

Zeltak, aldiz, penintsularen **iparraldean eta erdialdeko lurraldeetan** bizi ziren. Bere **herrixkak Kastro** deitzen ziren eta etxeak zirkulu formakoak ziren. **Tributan** antolatzen ziren. **Abeltzaintzan eta brontze eta burdinez** egindako bitxi, arma eta tresna asko egin zituzten. **Ez zuten diru propiorik** eta merkataritza urria zen.



1. Iberiar herrixka. A. Hanesia. B. Kale nagusia. C. Plaza. D. Laukizuzen-formako etxeak. E. Defentza-dorrea. F. Eskorta.



2. Herrixka zelta. A. Hanesia. B. Erakin publikoak. C. Abereentzako ibiltaria. D. Zirkulu-formako etxeak. E. Babes-holia. F. Labea.

Mediterraneo itsasotik iritsi ziren herriak

Iberiarrek eta zeltak, Mediterraneo itsasotik iritsitako beste herriei batera bizi izan ziren penintsulan:

Feniziarrek: Asiatik etorri ziren eta **Andaluziako kostaldean** koloniak eratu zituzten. **Metal bila** etorri ziren eta Iberiarrekin metalak, zeramika, marfila, zeta eta abar trukatzeko zituzten. **Beren dirua** zuten.

Greziarrek: Greziatik etorri ziren eta **Kataluniako kostaldean** finkatu ziren eta **koloniak** sortu zituzten; hau da, haiek bizitzeko herriak. Beren kolonietan egindako **zeramikazko gauzak saltzen eta metalak erosten** zituzten penintsulan.



Kartagotarrak: Afrikako **iparraldetik** etorri eta feniziarren guneean kokatu ziren. **Metal- eta ehun-merkataritzan** jarduten zuten. **Lurraldeak konkistatu** nahi zituzten, horregatik **erromatarren kontra borrokatu** ziren, penintsula kontrolatu nahian.

Herri kolonizatzaileen ondarea

Alfabetoa eta dirua izan ziren herri haien ondare garrantzitsuenak. Beste ekarpen batzuk idazketa, eltzegilearen tornua edota arrainak kontserbatzeko gazitza izan ziren.